



UNED SOSTENGURAKO UDAL BATZORDEAREN 03/03/2015

UNED BABESTEKO UDAL BATZORDEAREN BILERAKO AKTA, OHIKO SAIOAN EGINA, ASTEARTEAN, 2015EKO MARTXOAREN 3AN, 18:30EAN, EGOITZAN, IGNACIO ELLACURIA PLAZAKO 3.EAN, PORTUGALETEN

GAI-ZERRENDA

1. Aurreko bilerako aktaren irakurketa eta, badagokio, onarpena
2. 2014ko Aurrekontuaren Likidazioa
3. 2015eko Aurrekontu Proiektua
4. Zuzendariaren txostena
5. Galde-eskeak

Aipatu datan, aurreikusitako orduan eta ondokoak bertaratuta:

Mikel Torres Lorenzo Jauna, Portugaleteko Udalaren izenean, Artezkaritza Kontseiluko Presidentea.

Amaia Ramos Martínez Andrea, Barakaldoko Udalaren izenean, Artezkaritza Kontseiluko Presidenteordea.

Carlos Fernández Martínez Jauna, Barakaldoko Udalaren izenean.

Jesús Ortiz Zaballa Jauna, Sestaoko Udalaren izenean.

Gonbidatuta, Fernando Castañeda Bravo UNED Bizkaiko Zuzendari Jauna eta Miguel González San Martín UNED Bizkaiko Idazkari Jauna ere bertan izan ziren.

LEHENA.- AURREKO BILERAKO AKTAREN IRAKURKETA ETA, BADAGOKIO, ONARPENA

Baieztapen bidez onartu da.

BIGARRENA.- 2014KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Mikel Torres Lorenzo Presidente Jaunak hitza eman dio Fernando Castañeda Bravo Zuzendari Jaunari, 2014ko Aurrekontuaren Likidazioari buruzko datu esanguratsuenak azal ditzan. 97.676 euroko soberakina dago. Diru-sarrerak 1.383.578 eurokoak izan ziren eta gastuak 1.285.932. Hori kontabilitatearen ikuspuntutik. Benetan, gastuak 1.386.384 eurokoak izan ziren, beraz, emaitza 2.806 euroko defizita da (gutxi gorabehera Aurrekontuaren % 0,2). Aldeak zerikusia dauka likidazioan jaso gabeko gastu batekin, 2015ean gauzatuko baita (100.452 euro), jauregiko sotoen eta Egoitza eraikinaren teilatuen saneamendu-lanekin lotuta (EIT batek beharrezkoa zela esan ostean). Lan horiek uste baino gehiago atzeratu ziren 2014an izandako altxortegi-arazoak tarteko, zenbait diru-laguntzaren Diru-sarreraren planean jaso gabeko atzerapenak zirela-eta.

Diru-sarrerei dagokienez, 36.205 euro izan ziren Prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk partidan, eta 1.347.373 Transferentzia arruntak partidan.

UNEDen Egoitza Nagusiaren ohiko diru-laguntzaren ekarpena % 3 murriztu zen aurreikusitakoari zegokionez. Guztirako ekarpenaren behin betiko zenbatekoa 649.333 eurokoa izan ziren.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntz Politika eta Kultura Sailak 267.797 euroko ekarpena egin zuen, Legebiltzarrean zuzenketa bat onartu ondoren, haren 2014. urteko aurrekontuan hasiera batean agerturiko 100.000 euroko ekarpenari zegokionez.

Bizkaiko Foru Aldundiak 120.000, udalek 269.554 eta BBKren Gizarte Ekintzak 40.000.

Gastuei dagokienez, 510.305 euro Langileei (AZL) bideratu zitzaizkien, 275.378 Ondasun arrunt eta zerbitzuetara, 406.930 Transferentzia arruntetara (irakasle-tutoreen ordainketa barne) eta 192.382 euro Inbertsioetara, 75.920 (C6. Inbertsio errealak) eta 116.452 (C8. Pasibo finantzarioak) batuta, 2015ean ordaindu beharreko aipatu 100.453 euroak barne.

UNED SOSTENGURAKO UDAL BATZORDEAREN 03/03/2015

Carlos Fernández Martínezek gogoeta egin du Sestaoko Udalaren ekarpen urriaren gainean, 10.000 eurokoa baita, biztanleriarekiko proportzionala izateko konpromisoa urratuta. Bestetik, zorionak eman dizkio UNEDen ikastetxe elkartuko zuzendaritzari gastuei eutsi izanagatik.

HIRUGARRENA.- 2015EKO AURREKONTU PROIEKTUA

Zuzendariak, Presidenteak hitza emanda, 2015eko Aurrekontua proposatu du, 1.484.576 eurokoa. Aurreko puntuan aipaturiko 97.676 euroko soberakina kontuan hartuta, 2014 ekitaldiari dagokiona, erabiltzeko aurrekontua 1.386.930 eurokoa da, hau da, 2014 ekitaldikoaren antzekoa (diru-sarrerak % 0,24 eta gastuak % 0,04 handituko dira).

Diru-sarreretan, espero da 45.000 euro lortzea Prezio publiko eta beste diru-sarrera batzuetan, eta 1.341.930 Transferentzia arruntetan. UNEDetik 638.579 euro espero dira (CUIDeko matrikulengatiko itzulketa ez da izango % 65koa, % 40koa baizik); Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntz Politika eta Kultura Saitetik 267.797 eta Aldunditik 120.000 euro. Udaletatik 275.554 eta BBKren Gizarte Ekintzatik 40.000.

Gastuei dagokienez, Langileek (AZL) ez dute soldata-igoerarik izango, eta espero da kapitulu horretan 528.980 euro gastatzea, hala nola 310.048 Ondasun arrunt eta zerbitzuetan, aurrean UNED Bizkaiaren sorreraren XXV. Urtemugaren ospakizunari dagozkion gastuak jasota. 406.400 euro Transferentzia arruntetara bideratuko dira (irakasle tutoreen ordainketa; horiek ere ez dute soldata-igoerarik izango) eta 139.002 Inbertsio errealetara, besteak beste, teilatu-hegalak hobetzeko lanen bigarren fasea, 80.000 euroan.

LAUGARRENA. ZUZENDARIAREN TXOSTENA

Zuzendariak, Presidenteak hitza emanda, ikasturte honetan 3.638 ikasle daudela azaldu du; aurrekoan, 103 tituludun izan ziren. Otsailean, 4.557 azterketa egin dira. Eskertu egin du Epaimahaiari laguntzeko irakasle tutoreen lana. Egindako zenbait ikastaro aipatu ditu, esaterako, Campus Birtualaren Hastapenak, Harrera Planaren barruan ikasle sartu berriei eskainia; arte japoniarrari buruzko ikastaroa; idazketa-tailerra; Autocoaching ikastaroa; Grafologiaren Hastapenak; Txina, Gizartea eta Kultura ikastaroa eta Ingeleseko elkarrizketa. Guztiek harrera bikaina izan dute eta, leku-kopuru mugatua zutenetan, itxaron-zerrenda egon da. Ikastetxe elkartuak Twitter izango du eta, zerbitzu egokia emateko, AZL bi ari dira ikastaroa egiten. CUIDen, oinarritzko euskara ordeztzea eta ikastaro aurreratuen eskaintza handitzea aztertzen ari dira, B2n. Oinarritzko txinera ikastaroren bat emateko aukera ere aztertzen ari dira.

UNED SOSTENGURAKO UDAL BATZORDEAREN 03/03/2015

Urteko Kudeaketa Planaren ildo nagusiak azaldu ditu. Plan Akademikoan, ebaluazio-tasa eta arrakasta akademikoaren tasa handitu, ikasle berrientzako harrera-plana hobetu ekintza gehiago txertatuz, laborategiko praktiketara joaten diren ikasleen kopurua handitu. Unibertsitate Hedapeneko Jardueretan, kultur- eta hedapen-jardueren kopurua handitu, gutxienez horietako 6k kredituak eman ditzaten, UNEDen Udako Ikastaroen XXVI. Edizioan ere parte hartuko du, hiru ikastaro antolatuta.

Pertsonen antolaketan, helburuak dira barne-komunikazioa hobetzea, venia docendidun irakasle tutoreen kopurua handitzea eta AZLen eta irakasle tutoreen asebetetze-mailari eustea. Kalitateari, teknologiarri eta baliabideei dagokienez, SGIC-UNED-ANECA Kalitate Sistema egiaztatu, Zerbitzu Zorroaren beste edizio bat argitaratu eta Ikastetxe Elkartuaren agerpena areagotu sare sozialetan, AVIP gelen kopurua handitu, segurtasun informatikoa hobetu, Liburutegiarekiko ikasleen asebetetzea handitu, Master ikasleek osaturiko gero eta kolektibo handiagoa kontuan hartuta.

Ikastetxe elkartuaren sorreraren 25. urtemuga ospatzeko aurreikusitako ekitaldien berri eman du. Ekitaldi solemne bat egingo da, Errektorea bertaratuta. Zuzendariak eskaera egin dio Artezkaritza Kontseiluari, UNEDen Aitorpen eta Ohoreen Araudiaren 4. artikulua araberan, oroitzapenezko plaka bat eman dakien ikastetxe elkartuan lanean 25 urte daramatzaten AZL bati eta hamabost irakasle tutoreri. Lehenbizikoz udako ikastaroak antolatuko dira, Pintura Lehiaketan saritutako koadroen katalogoa egingo da eta UNED Bizkaia 25. urtemuga Literatur Lehiaketa antolatuko da, gaztelaniaz eta euskaraz, eta sarituriko lan biak argitaratu egingo dira.

BOSGARRENA. GALDE-ESKEAK

Eta besterik gabe, saioa 19:30ean amaitu zen.


Mikel Torres Lorenzo
Artezkaritza Kontseiluaren Presidentea